



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2017ko MARTXOAREN 7an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2017ko martxoaren 7an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola

Jose Ramon Hernandez Cristobal
Xabier Mugika Letamendia
Onintza Gorostidi Murua
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen du: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - **2017ko otsailaren 7an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. 2017 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 5. Oilategitik Kultur Elkarteak aurkezturiko 2016 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 6. Beste batzuk.**
- 7. Erregu, galdera eta mozioak.**

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2017ko otsailaren 7ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

03/2017 Alkatetza Ebazpena, otsailaren 9koa, Hutsik dagoen Idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

HIRUGARRENGO PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

BIDATEK	943,80
NATURGAS ENERGIA	423,17
NATURGAS ENERGIA	317,92
NATURGAS ENERGIA	107,38
NATURGAS ENERGIA	721,68
ULAHI ORONA	547,40
AUDAX	150,11
AUDAX	99,85
AUDAX	123,42
AUDAX	44,89
AUDAX	392,20
AUDAX	25,97
AUDAX	44,20
AUDAX	311,59
AUDAX	46,11
KOMUNIKAZIOA BIZIAGOA	150,00
EBA ERKIZIA	545,26
INFOBIBLIOTECAS	308,90
CORREOS	172,74
ARGITU	158,85
IBERDROLA	66,05
URCOLA IRIARTE RAMON	672,76
MOVISTAR	80,14
MOVISTAR	72,49



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

TOLOMENDI	152,50
ITURRALDE	129,02
DIMARPE	113,73
CALPARSORO INDUSTRIAL	27,99
SOLRED	57,05
AUDAX	147,76
AUDAX	692,87
TINTA INPRIMATEGIA	752,32
RECAMBIOS IBARRA	11,63
CORREOS	9,93
COPY-TEC	14,19
IZADI LABORATEGIA	152,94
IMPORT-QUIMIA	220,05

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **9.008,86** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARRENGO PUNTUA **2017 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA,** **HALA BADA**

Onintza Gorostidi zinegotzia arratsaldeko 19.55etan Udalbatza honetara bertaraten da.

Ikusirik 2017 urterako udal zergen eta tasen hobariak onestu direla, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2017ko otsailaren 1ean deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2017ko otsailaren 28-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean zazpi hobari eskaera egin direla, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik.

Ikusirik, zazpi eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Umerez eta Jose Ramon Hernandez, alkate eta zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.R.H.. Jaunak egin duen 2017 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BIGARRENA: J.M.G. Jaunak egin duen 2017 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

HIRUGARRENA: G.C. andreak egin duen 2017 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

LAUGARRENA: I.U.U jaunak egin duen 2017 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %25eko hobaria.

BOSTGARRENA: M.K.M. andreak egin duen 2017 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

SEIGARRENA: G.A. andreak egin duen 2017 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

ZAZPIGARRENA: A.M. jaunak egin duen 2017 urterako ondasun higiezin gainera zergaren hobari eskaera onestea, hau da, Kuota osoaren %30eko hobaria.

ZORTZIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

BOSTGARRENGO PUNTUA

OILATEGITIK KULTUR ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2016 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak, 2016urtean Oilategitik Elkarteari 2.000 eurotako diru-laguntza eman ziola.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Oilategitik Elkarteak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2016. Urteari dagokion gauzatutako ekintzen memoria eta emandako diru-laguntzaren adinako fakturak, memorian gastuen kitapenaren berri ematen delarik, ondorengo izanik:

GASTUAK:

a)Funtzionamendu gastuak	100,00€
b)Fotomekanika eta inprimaketa	2.496,00€
c)Webgunea ostatatzea	223,85€

GUZTIRA: 2.819,85€

SARRERAK:

a)Alkizako Udala	2.000,00€
b)Elkartearen ekarpena	Lan boluntarioa
c)Foru Aldundia	819,85€

GUZTIRA: 2.819,85,00€

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jose Maria Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, 30/1992 Legeak 28. Artikuluak xedatutako kasu batean aurkitzen delako, gehiengoz, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Oilategitik Kultur Elkarteak, aurkezturiko 2016. Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

SEIGARRENGO PUNTUA
BESTE BATZUK

6.1. TOLOSALDEKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2016ko EKITALDIKO MEMORIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2016ko ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua, Talde horrek eta Alkizako Udalak hitzartua duten 2016ko Lankidetzta hitzarmenean adierazten den modura.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BAKARRA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M. –k aurkezturiko 2016 ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua onestea.

6.2. BELAKO PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIOAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU , HALA BADA

Ikusirik Belako publizitatea eta komunikazioak eginiko eskaera, non 2017 urterako aurrekontuan Txantxangorri aldizkariari diru-laguntza moduan harpidetza eskaera kontutan hartzea eskatzen duten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udala, 2017 urtean, Txantxangorri aldizkariaren harpidetza egitea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Belako publizitatea eta komunikazioari ematea.

6.3. PLANETAREN ORDUA 2017 IZENEKO EKIMENAREKIN BAT EGITEKO ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik datorren martxoaren 25ean, larunbata, Planetaren ordua izeneko ekimena egingo dela.

Ikusirik Alkizako udala azken urte hauetan ekimen honekin bat egin duela, aurtengoan ere bere interesa azaldu duelarik aipaturiko ekimenarekin bat egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Planetren ordua 2017 izeneko ekimenarekin bat egitea, ondorioz, martxoaren 25ean iluntzeko 20:30-21,30 ordu bitartean, kale argiteri publikoa eta udaletxe eraikinaren argiteria itzali egingo dira.

BIGARRENA: Herritarrei ekimen honen berri ematea.

6.4. ALKIZAKO BALDOSAS JARRI S.L. PABILOIKO ZENBAIT ERAIKUNTZA ELEMENTU KENTZEKO BAIMENAREN ESPEDIENTE ITXIERAREN ESKAERA, BANCO POPULAR ESPAÑOL



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2016ko martxoaren 1ean eginiko Udalbatzarrean, Banco Popular Español-ek eginiko obra baimena onestu zela, hau da, Alkizako Baldosas Jarri S.L. pabiloiko zenbait eraikuntza elementu kentzeko baimena eman zitziola, Laura de la Fuente Martínez arkitekto teknikoak eginiko proiektuaren arabera eta Eba Erkizia Brion Udal aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzearen baldintzapean.

Ikusirik, Laura de la Fuente Martinez arkitekto teknikoak aurkeztu duela aipaturiko lanak bukatutzat jotzen duen dokumentazioa, aipaturiko espedientea ixteko eskaera eginik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DA:

BAKARRA: Alkizako Baldosas Jarri S.L. pabiloiko zenbait eraikuntza elementu kentzeko baimenaren espedientea ixtea.

6.5.ALTSASUKO ALKATEAK EGINIKO ELKARTASUN ESKAERA ONESTE, HALA BADA

Ikusirik Altsasuko Alkateak eginiko elkartasun eskaera, non ondorengoa dioen:

“Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan ziren; gure ustez prozesu horren izapideak Iruñan egin beharko lirateke, izan ere epaitzeko eskumena tokian-tokiko epaitegiei baitagokie eta ez Entzutegi Nazionalari. Hori hala izan behar lukeela adierazi dute zenbait erakundek, nabarmenki Nafarroako Legebiltzarrak, baita jurista eta Unibertsitate-irakasle ugari ere. Horren karira, zure elkartasuna eskatzera gatozkizu Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta idazki honen sinatzaileok ordezkatzan dugun gizarte zibilak luzatu dugun deiarri jarraiki.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Altsasuko alkateak eginiko elkartasun eskaera bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barne gaiak eta Justizia arloetako Sailburuari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ZAZPIGARRENGO PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

7.1. “MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA-ren ” ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONESPENA, HALA BADA

Eudel-ek ondorengo adierazpen instituzionala aurkeztu du:

“EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPEN EREDUA

Martxoak 8: Ordezkaritza orekatu baterako 8 printzipio

“Emakume gutxi daude ordezkatuta udal mailan erabakiak hartzeko guneetan, eta tokiko politikan sartzeko eta berdintasunezko parte-hartzerako arazo espezifikoek aurre egin behar izaten diete”. Hori jaso zuen IngerLingek¹ Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuaren 31. saioan aurkeztutako txostenean. Kongresua urriaren 20an egin zen, eta emakumeen tokiko eta eskualdeko parte-hartze eta ordezkaritza politikoari buruzkoa izan zen.

Erabakiak hartzeko guneetan emakume eta gizonen arteko parte-hartze orekatua edozein gizarte demokratikoren aurretiko baldintza da. Emakumeek eta gizonen tokian tokiko bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunean horrelaxe baieztatzen da, eta tokiko gobernuei honakoa eskatzen zaie: beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkaritza eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan.

Neurri horien artean, Eusko Legebiltzarrak onartutako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, “euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte”. Aipatutako Lege horretan, profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan emakume eta gizonen presentzia orekatuari buruz hitz egiten da. Horretarako, zuzendaritzako organoetan emakumeen presentzia areagotzea ahalbidetzen duten neurrien arabera dagozkien diru-laguntzak egokitu ahal izango dituzte, eta ezin izango diete

¹Inger Linge Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuko genero berdintasunerako bozeramailea da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

inolako laguntzarik eman hautaketa-prozesuan edo lan-jardunean sexua dela-eta bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

Udalgintzan, EAEko udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkaten dute. 2015ean, alderdi politikoei %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.

Euskadin gehiengoaren artean, batean soilik dago emakume bat Idazkari Nagusi; era berean, Euskadin egoitza duten erakunde finantzarioetako batean ere ez dago emakumezko lehendakariarik, eta erabakitze organo garrantzitsuetan %22,6 soilik dira emakumeak.

Elkarteetako emakume eta gizonen parte-hartzeari buruzko ehunekoei dagokienez, generoko ezberdintasun nabaririk izan ez arren, tradizioz rol femeninoa duten elkarteetan gehiago dira emakumeak: hezkuntza, erlijio, garapenerako lankidetzak eta gizarte-laguntzako elkarteetan. Kirol, politika, sindikatu, lanbide, arte eta herritarren esparruko elkarteetan, aldiz, nagusitasun txikiagoa dute.

Bestalde, emakumeen elkarteek, oro har, aurrekontu eta eragin-gaitasun mugatua izan ohi dute udal politiketan.

*Egoera horren JAKITUN, **ALKIZAKO Udalak** Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, honako honetarako konpromisoa hartzeaz gain:*

- 1. Kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua eta tokiko edozein organotarako izendapenak bermatzea, betiere, sexu batek ere ez dezan izan %40tik beherako ordezkariak (emakumeen parte-hartzea sustatzeko egitura espezifikoen izan ezik).*
- 2. Zenbait mekanismo ezartzea, hautatutako emakume ordezkariak eskumen-banaketa edo funtzio-esleipen estereotipatuaren edo bestelako diskriminazio- edo jazarpen-moduen eraginpean izatea eragozteko.*
- 3. Parte-hartzea eta bizitza pertsonal eta familiarra uztartzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, ordutegien eta lan-metodoen eta herritarrei laguntzeko sistemen bidez.*
- 4. Sexuaren arabera bereizitako estatistikak jaso, bideratu eta publiko egitea, itxura sistematikoa emateko, tokiko esparruan emakumeen parte-*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

hartzearen bilakaeraren jarraipena egin eta analisi horren araberako neurri zuzentzaileak ezartzeko.

5. Emakumeen parte-hartzea indartuko duten espazioak eta sareak sendotzea, hala nola, emakumeen etxeak, jabeakuntza eskolak eta/edo udal berdintasuneko kontseiluak, eta, besteak beste, emakume hautetsientzako 'Virginia Woolf Basqueskola' jabeakuntza-eskolako programan parte har dezaten ahalbidetzea.

6. Udalerriko emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren sustapena ahalbidetzen duten ekintza espezifikoak ezartzea modu inklusiboan, batez ere, gutxiengoan taldeko kideak diren emakumeei dagokienez.

7. Udalerrian gauzatzen diren parte-hartze prozesuek genero ikuspegia kontuan hartzen dutela bermatzea.

8. Udaletako berdintasun sailetan eta gainerako udal sailetan neurri horiek gauzatu ahal izateko baliabide nahikoak jartzea.

Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduak diren neurriak har ditzaten.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Eudel-ek aurkezturiko "Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko Eguna"-ren adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.